Erref. kodea: LAF-219-191 [48]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Kayet: *Ekhiaen indarra*

# Ekhiaen indarra

Nustenian, baanthailla hatsarre hortan zen, izan niz, emazte
chahár baten ikhoustea. Zertan zía? – Ooo! zankhouétaik minez;
freta eta freta, ezin egonez; eztakit zer den. – Ni e, egun hoietan, belha-
gnétik minez nuzu, aspaldian ukhen ezin bezala, eta hanitch hola tutzu
errematisma dunak; bena badakizía zertako? – Eez – Ekhiko thona
elibat goue aitzinian igaán diélakoz. – Ouste duzu? – Bai, hortakoz.
Erraiten dizie: argizagi berrian haou, argizagi bethian houa. Badita-
kezu; argizagia eta ekhia ber bide chuchenian agitzen diénian; ordian
biek ber gáintilat thiátzen beitie; ~~bena~~ argizagiak haboche, gutaik
huillanago délakoz. Bena, hánitch áldiz, kolpe bortitz hoik horra zizkutzu
ekhiak dutín thona gaichtouén gatik. – Bai othe? – Bai, hala duzu.
Lurrak beartan gagnen utzuli oso bat egiten dizu hoitaláou oenez, egun
batek; ekhiak aldiz, beartan gagnen unguiaen egiteko, ezarten dizu
hoitaláou egun; hortik agei duzu pheza bübil hoi handichko dela.
Espresuko largabichta bateki so egiten bazáio, nóuiztaik nóuizta, hegian
agertzen zizotzu thona elibat, eta houak, emeki emeki, sei egunen buiko,
erdiala heltzen tutzu, goue eetziala. Thonak handi izanik e, bazterrak
bethi bardin egoiten bazáitzo, khanbióik gabe, eztuzu deuse erráitekoik.
Bena thonáen hegiak desbárdin badía, urrakúaz bethéik, eta egunetik
egunila khanbiátzen, ordian bai, goue eetzian igáitian, denboái emaiten
diozu iharráous aldi bat, edo hotz bortitz bat, edo tenpesta, edo aize handi,
edo beo bouilta gaitz bat. Ordian izaten ahal duzu lur ikhára bat.
Erraiten dienian lur ikhára bat izan dela houlako lekhian, eta houlako
edo halako hiria erhaoustu dela, hounanbeste jente hil dela, segur izan
zite thona gaichto handi bat igaán delakoz dátekila. Thonak goue eetzian
igaán ondóuan, denboá ematzen duzu eta hóunilat jiten. Hátik, sei egunen
buian, thonák itzali ondóuan hegíaz beste gáintilat, izaten ahal duzu
oanv e khordokáldi bat.

Oáiko aldían e hala izan duzu. Thona igáitian, erran dizie kase-
tetan, bi áldiz ja: la terre tremble en Suisse; eliza klotcheá bat nounbáit
han eói dela, eta Geneve-ko hiou éhun eta berrogéita hámar elektrika
arloják tánpez ekhuátu diéla. Londres-eko teezéfak, áldiz, beházalier

erran zizun: egun eta gaour eztuzie ountsa entzunen, ekhian dien thonen káousaz. Zer denboán e Alemánian izan tutzu ebi handíak eta uháitzak hánitch góitutuik. Bestálde, thonak beste gáintilat igaán biháimenian, Algeri-an izan duzu lur ikhláa bat gaichtóua eta nounbáit hiou ehun jente hil. ~~duzu~~

Zer ~~dien~~ thonak izan behar zien, zen, erraudizie, goue lurra bezalako hamar, herrokán járriik, bata bestíaen saihetsían, batetán thona hartan sártluko ziéla, eta, khéez belztu beiná bateki ikhousten ahal zela, beste largabichtaik gabe. – Aálo!

Zer dien thona hoik, fountsian eztakizugu, eiá ekhíaen achala urratu eta barnétik horra denez aide izigarri bat. Zer nahi izanik zerbáit hantik élkhiten duzu. Sabántek diozie, zounbáit aldiz, agei dela ekhíaen hegían, bostehun eta sei ehun mila Kilometra gaitto-tu garra, eta behin ja, ikhousi diéla, bedeátzu ehun mila Kilometra góakoua. Ordían, pheutsatzen ahal duzu, haen indarra edo alphóa gutáa heltzían, áisa zerbáit sendi dugúla.

Eta gu ezin hel su haen ehâitea!

Kayet

FSC
MIXTO
FSC® C001636